

Txirrindularitza ♦ Bihar hasiko da, Donibane-Lohizunen, Nazioarteko Kriteriuma

Itzuliaren atarikoa, etxean

Tropeleko izarrek Iparraldeko errepideak zeharkatuko dituzte


Gorka Zabaleta / Donostia

NAZIOARTEKO KRITERIUMA Euskal Herriko Itzuliaren atariko ezin hobia izango da aurten euskal txirrindularientzat, Donibane-Lohizunen abiatu eta Iparraldeko errepideetan barna ibiliko baitira. Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako jarraitzaileek nazioarteko tropeleko izarrek bertatik bertara ikusteko parada izango dute, bertan izango baitira, besteak beste, Laurent Jalabert, Abraham Olano eta Davide Rebellin. Jalabert, Olano eta Rebellin Euskal Herriko Itzulia irabazteko faboritoak dira —italiarra etorriko den ikusteko dago—, eta aukera ederra izango da euren sasoia neurtzeko. Jan Ullrichek ez parte hartzea erabaki du azken orduan, Tourrari begira prestatzen jarraitzeko asmoa baitu.

Olanoz gain, euskal txirrindularien partaidetza zabala izango da. ONCEko David Etxebarria, Mikel Zarrabeitia eta Gaizka Lejarreta Donibane-Lohizuneko irteeran izango dira. Euskaltel-Euskadik honako zortzikote hau jarriko du lehian: Inigo Chaurreau, Ruben Diaz de Cerio, Iker Flores, Ramontxu Gonzalez Arrieta, Roberto Laiseka, Alberto Martinez, Mikel Pradera eta Haimar Zubeldia.

Nazioarteko Kriteriuma ♦

► Iblibidea



► Profilak

1. etapa

DONIBANE-LOHIZUNE • JURANÇON
Hasi: bihar, 12:30
Bukatu: 17:10

192 km

2. etapa (goiza)

MORLAAS • GOURETTE
Hasi: etzi, 09:25
Bukatu: 11:30

81 km

2. etapa (arrats.)

PABE • PABE
Hasi: 15:00
Bukatu: 17:30

11,5 km

J. APEZTEGIA

Banestok Unai eta Aitor Osa, Jon Odriozola, Jose Luis Arrieta eta Aitor Garmendia eramango ditu —Zulle ere bertan izango da—. Vitalicio-ren aldetik, Pedro Horrillo eta Alvaro Gonzalez de Galdeano ariko dira, eta Kelmen Javier Otxoa.

Nazioarteko Kriteriuma sona handiko proba da. Hinault, Fignon, Kelly, Indurain eta Jalabert ditu palmaresan, besteak beste. Iaz Jens Voigt irabazi zuen.

Txirrindulari osoentzako pentsatutako proba da. Lehen egunean etapa laua

jokatzen da, aurten Donibane-Lohizune eta Jurançon artean. Bigarren egunean, goizeko mendatean amaitzen da —aurten Gouretten—, eta arratsaldean erlojupekoa jokatu ohia da —aurten Pauen izango da, eta 11,5 kilometro izango ditu—.

Erik Zabelek ez du kontrariorik

Xabier Usabiaga / Donostia
ERIK ZABEL esprinter alemaniarrek izugarritzko pagotxa topatu du Kataluniako Setmanan. Aurre egin diezaiokeen esprinterrik ez du inguruan —Oscar Freire erretiratu egin zen—, eta, horrenbestez, erraz ari da gailentzen. Atzo, itzuliko laugarren etapa irabazi zuen esprintean, eta, dagoneko, pelotoian garaipen gehien dituen txirrindularia da, zortzigarren garaipena eskuratu zuen-eta atzo 29 urteko gizasemeak.

Denboraldi hasiera onak egin ohi ditu Zabelek, eta 1993an profesionaletan hasi zuenetik, beti eskuratu

izan du garaipen bat baino gehiago urteko lehen hilabeteetan. Aurten, gainera, 18 milia kilometro eginak ditu azaroaz geroztik, bereziki Milan-San Remo proba prestatzeko, eta lan horrek sasoiko jarri du hilabete hauetarako.

Proba esprintean amaitu bazen ere, saio anitz izan zen tropeletik ihes egiteko, eta gehien ahalegindu zirenetakoak Euskaltel-Euskadikoak eta Vitalicio-koak izan ziren. Igor Flores urdiandarrak helmugarako 20 bat kilometro falta zirela jo zuen erasoan, eta modu hartan lortu ez zuena esprintean eskuratu nahi

izan zuen; azkenean, meritu handiko bigarren postua eskuratu zuen. Bingen Fernandez bermeotarra ere ez zen lo egon, eta Vitalicio-ko Juan Carlos Vicario espainiarrek ihes egin zuenean,

haren gorpilari itsatsi zitzaion. Telekom taldeak, ordea, hiruzpalau ordezkari bazituen lehen pelotoian, eta, lehenaz gain, asko erraztu zioten garaipena Erik Zabeli.

Kataluniako Setmana

Laugarren etapa:

1. Erik Zabel (Tel)	3:37:48
2. Igor Flores (Eus)	d.b.
3. Beat Zberg (Rab)	d.b.
4. Ruggero Marzoli (Can)	d.b.
5. Laurent Jalabert (ONCE)	d.b.
6. J. P. Rodriguez (Kel)	d.b.
7. Oscar Mason (Mer)	d.b.
8. Axel Merckx (Map)	d.b.
9. O. Rodrigues (Ban)	d.b.
10. Igor Astarloa (Mer)	d.b.

Sailkapen nagusia:

1. J. P. Rodriguez (Kel)	15:27:56
2. Santiago Blanco (Vit)	d.b.
3. Giuseppe di Grande (Fes)	4ra
4. Axel Merckx (Map)	d.b.
5. Laurent Jalabert (ONCE)	d.b.
6. Gabriele Colombo (Can)	d.b.
7. Michael Boogerd (Rab)	d.b.
8. J. P. Llorente (Kel)	d.b.
9. Aitor Garmendia (Ban)	d.b.
10. Francisco Cabello (Kel)	d.b.

esprintak

Mario Cipollini sukarrarekin

Esprinter italiarra ezin izan zen irten atzo Cecchi Gori itzuliko bigarren etapari, bezperan, etapa amaitu zuenean, sukarra zuela ohartu baitzen. Cipollinik antibiotikoak hartuz sendatu beharko du gaixotasuna, eta hiru egunetan erabateko atseden hartu beharko du. Bestalde, Mapei taldeko Bartoli gripeak jota dago.

Marco Pantanik bere etxea utzi du

Taldeak emandako aholkua onartu eta Marco Pantanik Cesenatikoko etxea utzi du. Era horretan hasi du txirrindulariaren erreku-perazio psikologikoa. Taldeko manager Manuela Ronchik adierazi zuenez, etorkizunean zer egin nahi duen errazago erabakiko du horrela, eta egoerari aurre egitea erosoagoa egingo zaio. Bestalde, Pantanik heldu den hilaren 17an Michele Leoni epailearen aurrean erantzun beharko du, 1995ean Milan-Turin probaren ostean atzeman zioten hematokritoko portzentaia handiagatik.

Paolo Bettinirentzat etapa eta lidergoa

Cecchi Gori itzuliko bigarren etapa Paolo Bettini Mapeikoak (Arluno, Italia, 25 urte) irabazi zuen atzo, eta, bide batez, baita lider jarri ere. Etapa luzea izan zen atzokoa, 244 kilometro, eta Bettinik esprintean menderatu zituen beraekin batera ihes egin zuten hamaika txirrindulariak. Bestalde, Normandiako Itzulian Luca Paolinik irabazi zuen etapa. Hori ere Mapeikoa da.

Somarribak Tourra du helburu nagusia aurten

Joane Somarriba Italiako Giroaren aurkezpenean izango da gaur, baina bizkaitarrak adierazi du aurten Frantziako Tourra duela denboraldiko helburu nagusia: «Iaz lasterketa bertan behera utzi behar izan nuen, eta aurten arantza hori atera nahi dut. Giroa inoizko gogorre-na izango dela esan didate, eta bi erlojupekoak oso zailak direla». Somarribak dio aurkari gogorre-na Anita Pucinskaite taldekidea izango dela.